



LEABURU-TXARAMAKO UDALA
GIPUZKOA

Alkatetza Dekretuaren bidez onetsitako 2014. urteko 1. seihilabeteko urari buruzko tasen errolda jendeaurrean jarri da, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunen Arautzaileak, 14. Artikuluko 1. Zenbakian xedatutako betez. Halaber, Gipuzkoako Herrialde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duen apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuaren 78. Artikuluak eskatzen duen bezala, borondatez ordaintzeko epearen eta eraren berri eman da. Hori guztia ondorengo arauen arabera:

- a) Jendearen agerian dagoen lekua: Udal bulegoak.
- b) Aztertzeko epea: Hilabetekoa, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.
- c) Ezadostasuna agertzeko epea: Hilabetekoa, b) hizkian adierazi bezala, aurkeztu beharreko berraztertze errekurtsoaren bitartez.
- d) Errekurtsoa aurkeztu behar zaion organoa: Udalbatzarra.
- e) Erreklamazioak aurkezteko tokia: Udaleko sarrera errejistroa, bulego orduetan.
- f) Errekurtsoa aurkeztearen ondorioak: Aipatu Foru Arauaren 14.2 artikuluan xedatutakoak.
- g) Ordaintzeko epea: 2014ko urriaren 30arte.
- h) Sarrera modua: Helbideratutako ordainagiriak, zergadunek adierazitako kontuko banketxe edo kutxan kargatuko dira. Helbideratu gabekoak zergapekoaren posta helbidera igorriko dira eta horien ordainketa Gipuzkoa Donostia Kutxan egin ahal izango da.

Leaburu-Txaraman, 2014ko irailaren 19an
ALKATEAK

Stua.: M^a Luisa Uzkudun Etxenagusia